

# ARRASATE

## PRESS


Arrasate 1990eko Irailak 27, 77. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**INAZIO MUJICA IRAOLA**  
Betidanik literatur  
mundura lotuta

# ETXEBIZITZAK ARAZO



**OKIENDO**  
**KIROLAK**

*Merkealdietako  
azken egunak!*



# ONGI ETORRI ARRASATERA!



CANAL+



**A**rrasate Telebistak ongi etorriker beroena ematen die Mondragoeko etxeetan laster ikusi ahal izango diren telebista pribatuei eta aurrerantzean satelitez edo bestela etorriko direnei. ATBn ez dugu monopolioetan sinesten eta nazioartetik hizkuntza desberdinetan ailegatuko zaigun eskaintza oparoa begi onez ikusten dugu.

Baina Arrasatek bere telebista behar du, mondragoetarrak ondo jantzita egon daitezen herriko gorabeheraz. Gainontzeko telebistek, ikaragarri aberatsak izan arren, ezingo dute behar hori bete.

Horretarako gaude gu, Arrasate Telebista, zugandik hurbilen, egunez egun, zu zeu zeure herriko berrien protagonista egiten zaituena.

Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa duzu Arrasate Telebista, zeure herriko telebista. Badakizu non gauden: 22. kanalean.



ARRASATE TELEBISTA

# Zugandik hurbilena



# ARRASATE PRESS

## ASTEKARIA

### Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnua: 77 05 65

### Laguntzailea:

Arrasateko Udala

### Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

### Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

### Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri  
Tfnua: 77 08 15

### Maketazioa:

Goio Arana

### Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

### Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan.

### Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

### Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

### Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

# Informazioaren bideetatik barrena

**F**enomeno txiki bat ematen ari da informazioaren munduan, hots, idatzi nahiz ikusentzunezko bitartekoetan. Bi milagarren urterako dekada murriz bat gehiagorik geratzen ez denean, ikaragarrizko abiadura hartu dute komunikabideek. Informazioaren gaineko ahalmenak boterea adierazten omen du eta gaurregun gerrak ere ez lirateke berdinak izango, batipat telebistarik gabe. Bush eta Sadam Hussein, elkarri irainka aritu dira neurri txikiko pantailatik eta denok jarraitu ahal izan dugu borrokaldi arriskutsu hori, tenis partidu bat bailitzan. Etxeko jarleku erosotik ederki ohartu ahal izan gara, bi protagonista horiek gizadi osoaren bizkar zeramaten jokoaz, gu lekuko pasiboak izanik.

Baina aipaturiko fenomeno ez da konstatazio horretan ematen. Aitzitik, komunikazioak mundu osoa bere itzalpean hartzen duen bitartean, gero garrantzitsuago bihurtzen ari zaizkigu eremu urriko informazio-iturriak. Hau da, unean uneko albisteari tokian tokikoa erantsi

behar zaiola, gizakiak bere inguru hurbilean zer gertatzen ari den jakin nahi du eta.

Horren lekukoak ditugu, irakurle, zure eskuetan dagoen aldizkari hau eta baita ATB ere. Hain aldakorra gertatu zaigun mende bukaerako gizarte honek, hedapen osoko informazioa bezain beharrezkoa du hurbiltasuna. Eta horretarako, ezinbesteko sarea eginkizun dauka. Publikoarengana nola heltzea da balaiapen murrizetako bitartekoen ikergaia. Lehiakidetzaz izugarria izanik, begirune eta leialtasunez jokatu behar da, irakurle eta ikusentzuleak erakartzeko. Noski, ATBk ez du inoiz "Canal +" baten hedapena lortuko. Bai, ordea, arrakasta: arrakastaren neurria ez baitu ikusleen kopuruak ematen, horien zintzotasunak baizik.

Beraz, mundua txiki geratzen ari zaigularik, gizakiaren bame mekanismoak ongi bereiztu nahi du hurbiltasun bamekoia, gainerako konzeptu makroetatik. Hemen, Arrasaten, bide onetik goazela uste dut.

*Josemari Velez de Mendizabal*

*inpresio ona*



Ozaeta 1, Tfnua: 76 27 41 BERGARA

inprimategi eta  
autoedizio  
zerbitzuak





**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

**Liburu eta oparidenda**

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**BERANGO**

*Aroztegia orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atepak*

Legarreko pabiloi industrialak  
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE  
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

**AURRERATZEKO**

**SF**

**AIZKORA**

**AUTOZERBITZUA**

Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56

**ARTE LENIZ**

**koadro eta  
moldurak**

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

**Dagokionari**

Edozein egunetan Arrasateetik Bergararuntz joateko asmoa edukiz gero, kontu handiz ibili beharra dago Arrasateko bariantearen irteeraren, Eroski parean diot.


Lehen pausuak ez dauka ia arriskurik, markatuta dagoen bezala, Stop egin eta autorik ez badator bariantera sartu. Behin bariantean sartutakoan, bide erdian gelditu eta bidea eman beharra dago Aretxabaleta aldetik datozenei. Zortea edukiz gero, baliteke norberaren atzean inor ez izatea eta kasu horretan ondo ikusten da Aretxabaleta aldetik norbait datorren edo ez.

Bestelakoa da kontua, norberaren atzetik beste kotxeren bat datorrenean, bidea ematerako orduan atzeko autoa besterik ikusten ez delako. Asko izan dira toki horretan ikusi ahal izan ditudan istripuak, ia

saihesbidea inauguratu zen une eta egun beretik hasita. Ez dago gehiegi pentsatu beharrik ikusteko zerbait oker egina dagoela horrenbeste istripu gertatzeko, eta denbora pasatzen den arren, ez dut oraindik inolako konponketarik egiteko gogo edo asmorik somatu. Ni konturatu naizen era berean, beste batzuk ere (eta behar bada arrazoi gehiagorekin) konturatuko zirela uste dut.

Nire ustez, arazoak konponbide erraza dauka, ispilu bat jarri eta kitto. Dexente izan dira arrazoi horrengatik eman diren istripuak eta hain konponbide erraza edukita ez dut ulertzen zergatik oraindik ez duten jarri ispilu hori. Ea bada irtenbide hori edo besteren bat ematen dioten lehenbai lehen.

*Egunero hortik pasatzen den bat.*



**Berrikuntzak**

Aste honetako alean hainbat aldaketa nabariko duzue Arrasate Pressen. Sail berriak aurkitzeaz gain, itxuran ere igarriko duzue alderik.

Maketan egin ditugun aldakuntzak **Goio Aranari** zor dizkiogu. "Aldatu egin behar zela ikusten nuen. Funtsezko egitura aldatu barik, itxuraldatu".

Honetarako, berriz, aproba ugari egin behar izan ditu bere MacIntosh llii ordenadorean, bi programa erabiliz nagusiki: Page Maker eta Freehand izenekoak. Gure ustez, lortu du bere helburua.

Sail berriak bestalde, Arrasate Press osatuago egin asmoz sartu ditugu, han hemenka zuen iradokizunak jaso eta gero. Asmatu dugun ala ez, denborak eta zuek esango duzue. Bejondeizuelal



# Zer egingo zenuke harresiarekin?



**Lourdes Agirreurreta**  
(etxeoandrea)

Kontserbatu egingo nuke eta monumendu bezala ipini, museoa ipintzea ere oso ondo iruditzen zait.



**Luis Murguzur**  
(jubilatua)

Nik uste dut Arrasaten badagoela jendea horretan aditua eta ikerketa egin beharko litzatekeela. Ez dakit zer egin behar den harresiarekin, baina badago aukera bat hori gordetzeko, zaindu egin beharko litzateke.



**Gorka Galdos**  
(ikaslea)

Gorde eta zaindu egin behar dela uste dut, jendeak ikusteko bezala utzi.




**Naiare Artze**  
(ikaslea)

Ez dakit, gorde egin behar da, jendeak gero ikusteko.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORATZA**

**BELUN**  
taberna  
Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

**MemesA**

**79 42 22**

**ELEKTRONIKA**  
**ARTIKULUEN**  
**SALMENTA**

**BAZAR**  
TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

**URRIN**

Urbarri Etorbidea 22, Tfnoa: 79 95 24

**KAZOLATAN**  
**ESPEZIALISTAK**



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit.....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak).....	79 39 00
(emakumeak).....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua.....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate .....	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 88 96
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako ambulanziazak.....	45 87 44
-------------------------------	----------

**UDALTAINGOAK**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZTA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea.....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua).....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero).....	79 05 81
Gasa.....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

**GARRAIOAK**


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza.....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza.....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte.....	79 87 77
---	----------



**21 OSTIRALA**

• • •

- Zinea: Alai: "Se armó la gorda", 7 eta 10etan.
- Novedades: "Dos pájaros a tiro", 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

**22 LARUNBATA**

• • •

- Zinea: Alai: "Difícil de matar", 5, 7.30, eta 10.30etan.
- Novedades: "Razas de noche", 5, 7.30, eta 10.30etan.
- Moda jaialdia: 11.00etan "Arrasateko I. Modajaialdia. Udazkena-negua", Amaia antzokian. Sarrera 450 pta.
- Puentinga. Araotz auzoko Jaturabe zubian, nahi duten guztientzat.

**Kirol Agenda**

**SASKIBALOA**

• • •

- Igandean Eskoriatzako frontoian eguerdikoko hamabietan **CentralJet-Euskal Air** eta **Gasteiz** taldeen arteko partidua.
- Astearte 25, arratsaldeko zazpi t'erdietatik aurrera Arrasateko polikiroldegian **CentralJet-Euskal Air** eta Donostiako **Askatuak** taldeen arteko partidua.

- Moises Azpiazu Trikitixa lehiaketa. Bergarako plazan, arratsaldeko 6.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

**23 IGANDEA**

• • •

- Zinea: Alai: "Difícil de matar", 5, 7.30, eta 10.30etan.
- Novedades: "Dos pájaros a tiro", 5, 7.30, eta 10.30etan.
- Ardi-txakur lehiaketa, Oñatin goizeko 11etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santa Marina.
- Degurixa eta Anbotoste garabitzea. Goizez.

**24 ASTELEHENA**

• • •

- Zinea: Alai: "Difícil de matar", 7 eta 9.30etan.
- Novedades: "Dos pájaros a tiro", 7.30etan.

- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Magdalena.

**25 ASTEARTEA**

• • •

- Zinea: Alai: "Difícil de matar", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

**26 ASTEAZKENA**

• • •

- Goardiako farmazia: Azkoaga, Portaloia.

**27 OSTEAGUNA**

• • •

- Zinea: Amaia: "Una historia china de fantasmas", sarrera 200 pta. gazte txartelarekin 200.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

**ESKUBALOA**

• • •

- Oñatin igandean San Migel torneoko finalak goizeko hamaiketatik aurrera. Gazte mailan Zumaiako **Pulpo** taldea eta Beasaingo **BKL-CAF** taldeak lehiatuko dira; seniorretan berriz **Usurbilgo** taldea eta **Aloña Mendiko** taldearen artean erabakiko da irabazlea.

**SASKIBALOA**

• • •

- Igandean Eskoriatzako frontoian eguerdikoko hamabietan **CentralJet-Euskal Air** eta



## LIBURUAK

### • Antzuolako Alardea.

Mairuaren jaialdia

Antzuolako jaietan ezaguna da Moroen alardearen antzezpena. Orain, zuzenean ez ezik, liburuan ere ikus dezakegu gertakizun historiko horren berri. Iñigo Ramirez Telleria antzuolarrak Baldejunkerako gertaerak kontatzen dizkigu, garaiko agiri eta ilustrazioz hornituta.

ANTZUOLAKO ALARDEA



MAIRUAREN JAIALDIA


## MENDIA

• Aretxabaletako IV. mendiko astea

Larra Belagua, **paraje harrigarria** pelikula, Xabier Garretarena. Ostiralean gaueko 10etan Zaraia zineman.

Puenting-a egiteko aukera. Larunbatean, arratsaldeko 4etan Jaturabeko zubian.

Degurixa eta **Anbotoste** garbitzea, Besaide eta Murruxiko mendi taldeek antolatuta.



## DANTZA IKUSKIZUNA

### ZORTZIKO

Argia, kolorea eta musika. Horixe da, hitz bitan esanda, Zortziko euskal dantza ikuskizunak eskaintzen diguna. Juan Antonio Urbeltz nafarraren urtetako esperientziak taburpen ikusgarri hau eman du, Urbeltzek 30 urtean zehar euskal dantzak, musika, janzkera eta abarren azterketa eta biltze lan handia egin bait du, eta baita gai horren inguruan liburuak argitaratu eta hitzaldiak eman ere. **Argia** dantza taldea eta Euskal Herri guztiko beste bederatzitai talderen tankidetzarekin. Herensugearen istoriotik hasi eta mairu eta kristauen arteko liskarretara, gure historiaren bilduma koreografikoa da **Zortziko**, hurbiltzen den edonor txundituta uzteko modukoa. Ikuskizunean zehar atal bakoitzaren esanahia argituko digu ahots batek, pertsonaiak ezagutu eta historian koka gaitzen. Jende talde handi baten lana, orainaldia ahaztu eta aingeru eta deabruen mundura, Jaun Zuriaren albora, Druiden sagardoa edatera ... , eramango gaituena.

## YOGA

• Arrasateko Yoga Elkartearen 10. urtemugaren inguruko ospakizunak:

Astelehena, 24: **Naturismoa, Yoga eta Osasuna**. Jose Luis Abuin, Naturopata eta Kiropromasajista.

Astearte, 25 **Yogoterapia eta Osasun orokorra**. Jose Luis Armendiak.

Asteazkena, 26. **Tai-chi: Osasunaren garapen orokorrerako bidea**. Valentín Zurbarano, Tai-Chi irakaslea.

Osteguna, 27. **Hirugarren**

adinerako ariketa fisikoak. Eukeni Olabarrieta.

Ostirala, 28. **Gizakiaren energi sorketa. Osasunaren ikuspegi orokorrerantz**. Enrique Vega Akupuntoreak.

## BERTSOAK

• AED elkartetaren lokalatan **Bertso afariak** hastera doaz ikasturte berriaren ataritan. Ostiralez, gaueko 9etan. 700 pezeta.

• Apotzako San Migeletan, **afaria Azpilaga eta Mafukor-**

ta bertsolariekin ostirala, 28, 9.30etan. Izen ematea igande honetarako egin behar da, bazkideren baten izenean.

• Antzuolan **Bertso ikastaroa**, astean zehar gaueko 9etan, **Kaxetaren** eskutik.

## ARTEA

• **II. Arte Hamobostaldia**. Arte zaleek San Frantziskoko kalistroetan daukate zita. 7 artista lanean ikusteko aukera. Tailerrak, instalazioak, musika esperimentalak, eta euskal artistak eta kanpokoak eza-gutzeko era bikaina.

• Hamobostaldiaren barruan, **Bilboko EPE taldeak** *Arte y transcendencia* gaia jorrratuko du, irailaren 28an Ospitale Zaharreko kalistroetan.



## DANTZA

• Larunbatean arratsaldeko 6.30etan Bergaran **Moises Azpiazu** zenaren omenez **trikiti-xa dantzen txapelketa** antolatuta da. 15 urtetik gorakoek har dezakete parte. Ikuskizun polita Bergarako San Martin plazan.

Sari banaketa **Zortziko** euskal dantzen ikuskizunaren atsedendian izango da

## IKASTAROAK

• HHIn matrikula epea **zabalik** dago hil osoan zehar.



“Tele aukera asko dagoenez, estatalak, autonomikoak eta oraingo hiru pribatuak, hartzailegoa asko banatuko da. Kanale desberdinen lana hori izango da, programaziorik deigarriena emititzea jende portzentairik altuena jasotzeko. Helburu bakar horrekin imajinatzekoa da zein programa mota jarriko dituzten: teleserieak, filme amerikarrak, lehiaketak e.a.”

(Edorta Arana arrasatearrak, Argia astekarian)

“Gerardo Markuleta egun, Diario Vasco egunkariaren Zabalik gehigarriaren literatur orrialdeen arduradun eta Arrasate Press-en ari da irakaskuntzak libro uzten dizkion orduak aprobetxatuz”.

(J.J. Petrikorena kazetariak Argia astekarian)

“Erosiberri dut hozkailu-izozkailua,(...) Fagor aukeratu nuen, pentsaturik Euskal Herriko enpresa kooperatiba bat dela. (...) Hasten nauk instrukzionetako prospektuak irakurtzen eta harrigarria (...) euskararik ez. Banoa baitezpadaki (derrigorrez) erdaren bilha, eta hara non zazpi erdara ikusten ditudan: español, francais, english, deutsch, nederlans, portugues, italiano”.

(Erramun Gerrikagoitiak, Egin egunkarian)

Umeak literaturan zeren bila doaz?

Umeek txikitatik hasi eta erizpide handirik ez dute izaten, baldin eta heziketa bat izan ez badute. Orduan umeek eskatzen dute nolabait helduek bidean jartzen dietena.



Oso inportantea da umeek zer irakurriko helduek ere kezka daitezen, zeren azkenean haurrak egiten bait du beti eskuetan jartzen zationa. Baldin badugu errezenera jotzeko jokabidea, haur batek askoz ere gehiago. Orduan haurra literarioki heziketa baldin bada, helduek hezi behar dute lehendabizi.

Nik uste dut alde horretatik erronka handia dagoela. Anekdotak batekin ilustratuko nuke: behin Zarautzen galdetzen zidaten ea zer egin beharko litzatekeen haurrak zaletzeko literaturaz. Erantzuten nuen irakasleak literaturaz zaletzea zela egokiena. Hor dago koska, umeek zer erakusten zaien, huraxe ikasten dute. Zer ikusi hura ikasi, egiten dute umeek.

Arrakastaren arrazoi nagusiak, umorearen erabilera, inbestigazio eta suspense piska bat generoa parodiaturik, eta euskara beraren erabilera, euskara belarritik ia gehiago sartzen dena begitik baino, esateko ere egiten den euskra. Hiru horien konbinaketak egiten du arrakastata.

Behin adin batean, adoleszentiaren muga horietan, irakurlegoan bereizketa bat gertatzen da. Mutila abentura zalea den bezala, neska bere barnera begiratzen hasita dago eta nolabait heziketa liburuak, atsegin ditu gehiago, berriro ere hemezortzi urte inguruan dibertsifikazio hori elkartzen den arte.

Andu Lertxundi, Idazlea.

**FAGOR**



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

**GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN**

**ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA**

**SANIDES**

Parasitoei aurre egiteko  
Insektu narraztiak akabatzeko,  
arratoiak barne

**URTEBETEKO GARANTIA**

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

**Zunbeltz**

Simon Arrieta Enparantza 2,  
BERGARA



## Eskoriatza

Hilaren 18an, Eskoriatzako Telesko-k bere bosgarren urteurrena bete zuen.

Bostgarren urtebetetzea ospatzeko programazio berezia eskaini zuten. Alde batetik, inkesta egin zuten herrian, eta horren ondoren herriari eta bere historiari buruzko 22 galderaz osatutako lehiaketa egin zuten, arrakasta handiz egin ere. Jendearen erantzuna oso handia izan zen, eta herria, herriko pertsonaiak eta historia ezagutzen dituztela argi geratu zen. Sari banaketan ikusi zen zein jende motak parte hartu zuen lehiaketan, gazteena 5 urtekoa eta zaharrena 70 urte ingurukoa, herri guztia, beraz.



Telesko



## Aretxabaleta

Joan den astelehenean, irailak 17, San Migel jaietarako programa onartu zuen Aretxabaletako Udaleko Gobernu Batzordeak. Herriko taldeengandik jasotako proposamenak jarraituaz, hiru egunetako egitaraua burutzea pentsatu da, baina Atxabaltako jaiak abuztuan izango dira, eta Samigelak horiez gain ospatuko.

Egitarauko ekintza batzuk aipatzekotan, ostiralean, hilak 28, *Tunantes del norte* antzerki taldea eta Rock jaialdia, eta goizaldeko 3etan sokamuturra eta txokolatada. Larunbata jubilatuei eskainiko zaie, ohizko ekintzekin. Arratsaldeko 7etan antzinako euskal ezkontza antzeztuko dute herriko kuadrilek, eta gauean *Camp* dantzaldia Durana kalean.

## Bergara

Bergarako Udalak, eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinen berri herritarrei emateko asmoz, gida liburu

bat kaleratu du. Liburuaren aurkezpena datorren larunbatean, hilak 22 izango da, Bergarako Errotalde kultur

etxean eta eguerdiko 12.30etan.

Liburuan arloz-arlo azetzen dira Udaleko zerbitzuak, koloretako argazkiz hornitua eta euskaraz eta erdaraz. Horrekin batera, turismo aldetik Bergaran eta inguruetan ikus daitezkeen naz liburuska sorta bat ere atera dute Bergarako Udalean, argazkiak koloretan eta auzo eta bazter bakoitzari buruzko historiarekin.

## Oñati

Baserritarren seme-ala-bei zuzendurik, nekazaritza eta basogintzarekin lotutako ikastaro bat antolatu da Oñatin. Ikastaro horren helburua, mendietako lanak egiteko langile talde batzuk trebatzea da, garbiketa, zuhaitz botatze eta antzeko lanetarako. Baserritar langabetuek izango dute lehen-tasuna eta zati teorikoa urriaren lehen hamabostaldian zehar emango da. Praktikari dagokionez, launaka jarriko dira ikasleak, eta urriaren bigarren hamabostaldian ekingo zaio, urtarriaren 31 arte.

**ETORKIZUNERAKO PRESTATUKO ZAITUGU  
ETA ATSEGIN IZANGO DUZU!**

Klase praktikoak  
Titulu ofiziala

Kitto zalantzak.  
Erraz daukazu gurekin.  
MATRIKULA ZAITEZ GARANTIAZKO  
LANBIDE-IKASTETXE ZENTRUAN



General Mola enparantza 4, ( San Antonia elizaren aurrean)  
Tfnoa: 23 33 99 GASTEIZ



**PEÑACOB**  
Auto-Eskola

Zarugalde 46,  
79 14 01

**ARRASATE**

**ORTZI  
erretegia**

Angiozar auzoa  
Tfnoa: 76 22 68 BERGARA



# Gerardo Markuletak liburua aurkeztu


*Bost idazle liburu baten inguruan*

Gerardo Markuleta idazle oñatiarraren poesia liburua, *'Larrosak, noizean behin'* izenburua daramana, joan den ostegunean aurkeztu zen Arrasateko Monterron Jauregian, arratsaldeko

7etan. Markuletaz gain, beste lau euskal idazle etorri ziren, eta bakoitzak bere ikuspegia eskaini zuen oñatiarraren obrari buruz. Itaki Aldekoa oñatiarrak bere herritarraren poesia koka-

tu egin zuen. Irakurle amorratua dela igarri egiten omen zaio Markuletari idazteko moduan, eta 50. eta 60. urteko idazlearen eragin bizia. Erraz, intimista eta autobiografikotzat deskribatu zuen *'Larrosak, noizean behin'*-eko poesia, heriotzari buruz ere badiharduena.


Mujika Iraolak eta Markuletak berak ere zenbait poema irakurri zituzten entzuleentzat, eta Andu Lertxundik, autorea nola ezagutu zuen eta *Erein* argitaletxeak liburuak aukeratzekoan zein erizpide mota erabiltzen duen aipatu zuen, argitaletxearen izenean etorri bait zen idazle oriotarra. Juan Garziak, poesian aditua ez zela aitortu ondoren, liburu birritan irakurri duela esan zuen, gustoko izan duen seinale. AED elkartearen zuzenaren aitariarekin amaitu zen idazlearen arteko solasa, eta honenbestez, hurrengo liburuen zain geratzen gara literaturazaleok. Gerardo Markuleta-Jon Iriberrri, izen bi liburu on baten autorearentzat.



Liburuaren aurkezpena afariarekin amaitu zen

## Roneo zaharra erortzen


Aspalditik geunden noiz eroriko zain. Azken egunotan, hala ere, errepedea ere moztu egin dute Roneo parean, eta hori bazen zerbaiten seinale. Asteazken goizean han izan ginen, beste asko bezala, ikusminez, baina makinaren ahaleginek ez zuten fabrika zaharra ipurditik botatzea lortzen. Itxoiten egon eta puntu-puntu harrapatu genuen, zutabe zaharrek, etsita, amore eman zutenean.



**Arrasateko  
jatetxea**

Olarte kantoia 3,  
Tfnoa: 79 84 53

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62





Aste osoan zehar entsaioak izan dira

## I. Moda Jaialdia larunbatean

### Arrasateko denden eta modeloen partaidetzarekin

*Mambo nº 1* dantza taldeak antolatuturik, datorren larunbata, hilak 22, izango da Arrasateko I. Moda Jaialdia. Herriko hainbat jantzidenda, zapatategi eta osagarri denda izango dira partaide, guztira hogeitabost. Mambo nº 1 taldeak orainarte antolatu izan dituen ekintzen artean dantza erakusketak eta ihauterietako jaialdia aurki daitezke, eta oraingoa da moda desfilea egingo den lehen aldia, Udaleko Kultura Bartzordearen laguntzaz.

Amaitzeko, eta larunbatean gaueko 11etan hasita, honako hau izango da gaueko egitaraua: ekitaldia neska-mutil gazte talde baten dantza emanaldiarekin hasiko da eta horren ondoren benetako moda erakusketa. Arrasateko denda guztietako haurren moda, gazteentzako gero, eta kirol-arropak ostean. Jarraian, udazken-nerurako moda tendentzien aurkezpena,

eta horren atzetik, Arrasateko dendetako lentzeria edo barruko arropen erakusketa izango da. Arrasateko moda diseinatzaile berriek egindako jantziek ere izango dute sail berezia, eta oinetakoen pasarella ikusi ahal izango da ondoren, hau ere Arrasateko zapatategiek utzitako oinetakoz osatua.

Maritxu Kajoiko trajeen diseinu lehiaketako jantziak erakutsiko dira, jaialdiaren bukaeran sari banaketa egingo delarik. Saioan zehar *'Tunantes del norte'* antzerki taldearen bi sketch tartekatuko dira.

Aipatzekoa da pasarelan ikusiko ditugun modeloak arrasatearrak izango direla, 54 lagun guztira, bederatzi profesionalz gain, eta antolaketa guztiaren aurrekontua 1.061.000 pezetakoa dela. Kostu guztia herriko denden lepotik ordainduko da, eta jaialdiko sarrera 450 pta. kostako.

## Usteak uste

**A**rrasate Telebista agerua zenetik mondragoetarrek beste medio garrantzitsua daukate herriko gorabeherak hurbilagoetik jarraitzeko.

Astelehen iluntzean pauso berria eman zen norabide horretan. Alkatea mondragoetar guztien aurrean azaldu zen lehengo aldiz, kazetarien galderei lehendabizi erantzunez eta herritarrenei gero, Udaletxeko gorabeheren berri eman zuen.

Behar bada luzeegi hitz egin zuten hirigintzaz, beste hainbat gai erdi alboratuta utziz. Akaso alkatea luzatu egin zen zenbait erantzunetan. Duda barik, telefonoa ez zen nahi bezain ondo ibili, baina akatsak akats, saio interesgarri bezain baliagarria izan zelakoan nago.

Saioz-saio kazetariak aldatuz joango dira eta arazo teknikoak konpontzen diren neurrian, herritarrek aukera handiagoak izango dituzte herriko agintari nagusiarekin zuzenean hitz egiteko, beste herritarrek entzuten duten bitartean.

Geure arteko elkarrizketa areagotzeko tresna ona izan daiteke Arrasate Telebista eta ditugun arazoak bide horretatik konpontzeko modua erraz diezaguke.

*Joxe Aranzabal*

## LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,


ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Ilea jausten bazaizu, edo arazoak badituzu zure ilearekin, etor zaitez  
**GUBI ILEAPAINDEGIRA**

Otalora 5, 1. A,  
Tfnoa: 79 12 74





## Urkuluko urak behera

### Azken bost urteetako abuztuaren amaierako datuak

Urkuluko urtegia 1978an inauguratu zen. Ordutik hona, euri asko egin du, baina badirudi azken bost urteetan ez duela behar adina egiten. Horixe da, behintzat, aspaldion komunikabideetan zabal dabilena. Inguruotako jendeak ere somatuko zuen Urkuluko uren jaitsiera eta inguruotako zelaien lehorra, pasiada egitera joandakoan. Datuak irudiko horiek dira: itsasoaren mailaren gainetik zenbat metrotara egon den uraren marra azken bost urteetan. Bildutako ur kopuru guztia

milioi metro kubikotan emana. Datu horiek egunen batean kokatu behar eta, urte bakoitzeko abuztuaren azken eguna hartu dugu erreferentzia legez.

Gogora dezagun Urkuluko urtegitik Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate eta Bergarara bidaltzen zela ura orain arte. Une hauetan Elgeta eta Oñatirako ubideak egiten ari dira, datorren urtearen hasierarako bukatuko direlarik. Antzuolarako ere badago asmoa, Urkuluko urtegitik adierazi digutenez, baina oraindik ez dira ezertan hasi.

### Besaideri buruz

Aurreko astean aipatu bezala, Besaideko inguruaren inaugurazioa udaberrirako utzi da, baina ez monumentua bera bukatzeko dagoelako. Arte lan hori egunotan eramaten ari dira Besaidera, baina inguruak txukundu barik daudenez, udaberrira itxaron beharko da mendi hori pentsatuta zegoen moduan ikusi ahal izateko. Izan ere, ohiartzun handia eman zaio monumentuari, eta Besaidekoen asmoa hori baino zabalagoa da. Oraindik erosteko dagoen Gipuzkoako lur saila erosi ondoren, pinua bota eta belarra erein nahi da, baita iturria konpondu eta barrenean pago, haritz eta lizarrak sartu ere.

### Jaiotzak

Saiz Muñoz *Mikel*, Irailak 6  
 Araujo Sarmiento *Hugo*, Irailak 9  
 Diez Trejo *Mireia*, Irailak 9  
 Alcoba Poves *Amaia*, Irailak 10  
 Sierra Zeziaga *Maria*, Irailak 11  
 Del Campo Aspiazua *Ane*, Irailak 12  
 Carpintero Martin *Jaione*, Irailak 12  
 Beloki Abasolo *Sara*, Irailak 12  
 Lopez Telleria *Mirian*, Irailak 14

### Ezkontzak

*Pedro Maria Agirre & Mª Karmen Uribesalgo*, 13an Zibilez  
*Jozefuz Theodorus Johannes Van Gaalen & Mª Aranzazu Aranzabal*, 15an zibilez.  
*Eurelio Ormaetxea & Miren Elene Orobengoa*, 15an Zibilez.  
*Carlos Albertos Fernandez & Mª Rosario Urizar*, 15an Zibilez.

## Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea  
 Jose Mª Gomez doktorea  
 A. Otalora doktorea  
 A. Estomba doktorea  
 Mª Jose Ruiz doktorea

*Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.*

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...  
 Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara  
 telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE





Abaroara chun jubilatutik gora hurbildu ziren

## Negua gripe barik

*Joan ezin duenari etxera eramango zaio txertoa*

Irailaren 17tik hasita urriaren bukaerara arte, gripearen aurkako txertaketa izango da Arrasaten. Hiru talde bereizten dira txertoa hartzeko orduan: batetik 65 urtetik gorakoak. Beste talde bat diabetesa, bihotzeko gaisotasunak, birika nahiz giltzurrunekoak, loditasuna bezalako gaisotasun kronikoren bat jasaten duten 65 urtetik beherakoek osatua da. Aurtengoan, gainera, bere borondatez datorren edozeini ere emango zaio bakuna.

Txertua hartzeko modua era honetan antolatu dute arduradunek. Edo-

zein herritarrek anbulategira jo dezake, hala nahi izatera, edo bestela egun eta ordu hauetan auzo bakoitzean: irailak 24 San Andrezen, 25ean Santageda-Gesalibarren, Irailaren 26an Udalan eta Meatzerekan (12.15etan), 27an Garagartzan eta 28an, Bedoñan. Ordutegia goizeko 11etatik 12etara bitartean izango da, auzo bakoitzeko alkatez. Etorri ezin duten gaixoentzat etxez-etxeko zerbitzua antolatu da. 65 urtez gorakoek ez dute papelik ekarri behar, eta beste guztiek nahikoa dute medikuak egindako bolantearekin.

## Jexus Mari eta "Mendi" Txapeldun

Aurreko astean ere aipatu genuen Udako Palazio baserriko ardi txakurraren sarien berri. Harrez gero Isurtzan ere Euskadiko Txapelketa bereganatu zuen Mendik, horrela Oñatiko nazioarteko Lehiaketarako sarrera lortuz. Datorren larunbatean da zita, Oñatiko Santa Luzia zelaietan, goizeko 11etan. Euskal Herriko beste hainbatez gain, katalanak eta frantsesak izango dituzte aurrez aurre Jesus Mari Plazaolak eta bere txakurrak. Ez dago beldurrik, hala ere, Mendik, argazkian ikusten denez, jasoak ditu Katalunian ere sariak.



**R**  
**RICOH**

Telefax-kopiagailuak

**AITZINDARI!**

1000 L telefaxa: laser-izpien bidezko inprimaketa edozein paperetan. Laser inprimaketaz gain paper arruntean, RICOHren oraingo produktu honek hainbat berrikuntza harrigarri eskaintzen du inprimaketaren kalitate eta iraunkortasunaren aldetik. Funtzio-aukerarik osoena ere badu, erabiltzaileei posibilitate multzo berria eskaintzen dielarik.



Informaziorik nahi baduzu, jarri harremanetan MAQUELSAekin.  
Avenida 52 etxabea, Tfnoa: 945-24 22 04. Fax: 24 64 97 01008 GASTEIZ

FAX 1000 L Laser



## Artearen martxa

Ospitale Zaharreko kalistroen inguruko lokaletara hurbildu direnek, edo datozen zazpi egunetan zehar bertaratutakoek, irudi hau eta antzeko beste batzuk ikusteko aukera izango dute. Dagoeneko giro berezia sortu da herrian, artista jendeak ekarri duen arte usaina nabari da. Baina argazkian ez da dena jasotzen. Kanadiarrek ekarritako musika berri eta esperimentalak airez aldatu du San Frantzisko ingurua. Oraindik bisitatu ez duenari, obrak bukatuta gero baino egiten ari direla ikustea gomendatu behar, artisten azalpenak entzutea interesgarri izango delakoan.



Gobernu Batzordeak atzera bota zuen PSOEren proposamena

## Hizkuntz perfilak onartuta

### Aldibereko itzulpen sistemari ezetza Udalean

Joan den asteleheneko Gobernu Batzordean dexente hitz egin zen, besteak beste, euskarari buruz. Alde batek, aspaldidanik martxan zegoen hizkuntz eskakizun edo perfilak ezartzeko egitasmoa, onartu egin da aste honetan. Horren arabera, Mondragoeko udaletxeko langileek 1993ko abenduaren azkenera arte izango dute, bakoitzak bere lanpostuak eskatzen dion euskara maila lortzeko epea. Orain IVAP-HAEE-ri dagokio lehenbailehen azterketak jartzea.

HB, EA, EAJk eta EE., bestalde, ez zuten onartu Udaletxeko plenu aretoan aldibereko itzulpen sistema jartzeko sozialistek egindako eskaria. Alderdi horien ustez, bereizkeria izango litza-teke langileei gutxieneko euskara maila eskatu eta zinegotziekin bestela jokatzeari. Arrasateko hogeitabat zinegotzietatik lau izan ezik, beste guztiak gai dira plenoa euskaraz jarraitzeko. Itzulpen zerbitzuak, bestalde, 2.700.000 ptako aurrekontua zuen, onartu izan balitz.

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

ARETXABAETA

**VE ECUADOR**

Kontzesiño 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**URONDO**  
eletrizitatea



- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak


Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

**L ARRINGAN**  
auto gidarien eskola  
**KLASE TEORIKOA**  
**IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



## Datozen Hauteskundeetarako gure bailarako hautagaiak



Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkatea, 25. HBtik.



Jose Luis Elkoro, Bergarako alkatea, 20. HBtik.




Esther Larrañaga, arrasatearra, 3. EAtik.




Jose Mari Velez de Mendizabal, 10. EAtik Araban.



Eli Galdos, Oñatiko alkatea, 12. EAJtik.



Leandri Leandri, atxabaltarra, 20. EAJtik.



Iñaki Arregi, arrasatearra, 10. EEtik.



Elisabet Zubiaga, arrasatearra, 20. EEtik.



Francisco J. Zendoia, bergararra, 23. PSOEtik.

### Parrokiako oharra

Ikasturte berriaren hasieran, haurrak katekesira eta Aisialdiko taldeetan sartzeko deia egiten da. 90-91 ikasturtean zehar ekintza horretan esku hartu nahi duten haur eta gazteek, aste gutxian zehar eman ahal izango dute izena, arratsaldeko 4.30etatik 6etara, Abade-txean bertan. Bestalde, gazte talde horietan monitore nahiz katekesian irakasle izan nahi luketenei ere dei berezia egiten zaie.

### Gazte Taldeentzat

1990erako Arrasateko Udalak gazte taldeentzat onartutako dirulaguntzen 2. parte, falta den %40a jaso ahal izateko, irailaren azken egunerarte dago epea. Epe horren barruan, iraile-rarte egindako ekintzen memoria aurkeztu behar da. Orkatz Skaut Taldea, San Frantzisko Gazte taldea, Musakola Gazte taldea, Galtzagorri taldea, S. Andres Gazte taldea, Forum Viator Joven, Uribarriko Gazte taldea, Sta. Teresa eta Aizpurutxo taldeari luzatzen zaie deia.

### Anbotosteko garbiketa

Datorren larunbatean, hilak 22, Besaide Mendizale Elkarteak eta Aramaixoko Orixolek Anbotu inguruak garbitzera gonbidatzen zaituzte. Goizeko 8.30etan Portaloian elkarturik, Garagartzaraino joan eta handik Anbotosterainoko bidea garbitzea da asmoa. 11.30etan hamarretakoa egingo da.



## IRAKASLE ESKOLA

Irakasle Eskola honek zera jakin arazten du:

**1990-91 IKASTURTERAKO  
MATRIKULAZIO-EPEA ZABALIK  
DAGOELA IRAILAREN 26arte.**

Informazioa:

IRAKASLE ESKOLA. ESKORIATZA (Gipuzkoa)

Tfnoa: 943- 79 04 40

Ordutegia: 9-12 eta 15-18

## UDALA

Auto-eskola


Minusbaliatuentzako  
klase bereziak

Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56


## KAJCI TABERNA

**erdiko kale 22  
tfnoa: 79 32 27**






ETB 1ean programazio berria kirolek aparteko garrantzia izango dutela ematen du. Eta kirol programazioan **Asier Aranguren** aretxabaletarra pieza inportantea. Seattle-etik eman ziren *Adiskidetasun jokoak* berak eman zituen Estatu Batuetatik. Larunbat arratsaldean *Kirolez Kirol* saioa zuzentzen eta aurkezten ikusi genuen, ezin hobeto. Zeresanik franko emango du Asierrek oraindik ETBn.



Pastoralaren egunean ikusgarria izan zen Monterrongo parkean **Eskoriatzako Irakasle Eskolako bideo taldeak** egindako lana. Goizeko 10etan hasi ziren lanean, irudiak hartu eta errealizazio guztia egiten. Luis Mari Alvarez ibili zen buru, eta egun guztiko jardunaren emaitza, joan den astelehenean ATBtik ikusi ahal izan zenuten bideoa izan zen: Abadia Urrustoi pastoral oso-osorik.



**Nork KUKURRUKU!!!**  
**Ollarrak**  
**ollotegian?**  
**...Ez. FAGOR'ek**  
**sukaldian**

Euskarazko iragarkiak ez dira atzo goizeko kontua. Fagorrek ere, 1964ean euskaraz egiten zuen bere publizitatea, urte hartako *Zeruko Argia* zahar batean aurkitu dugunez. Dagoeneko ez dago oilarrik Fagorren, baina kukurrukuaren entzutea handiagoa da.

## AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilpen iraunkorrekoak

**Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!**

**Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU**

**Zure betaurreko eta lentilen aseguruia doan**

**Kontzesiño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate**





Epelde

◀ Felix Aranegi eta Elena

Kortabarra, San Balerio ermitan ezkondu ziren, maiatzaren 26an. Bidaian Canarias aldera joan ziren. Zorionik beroenak bioi!

**1zen**  
**PROPIOAK**

● **JUAN JOSE ARRIETA, 35**, plaentxiarra da Irailaren hamaitatik Lan Kide Aurrezkiaren zuzendari orokor berria, karguan Jabier Irastortza ordezkatu. Juan Josek Ekonomia ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean. LKAn 1979an sartu zen.

● **DIEGO ARRIARAN ZUBILAGA, 25**, arrasatearra, Arrasateko etxebizitzaren zentsua egiteko kontratatu du Udalak. Bere lana hutsik dauden etxeen zerranda egitea izango da, zergatiak eta antzeko xehetasun batzuk kontutan hartuaz. 6 hilabete epea izango du lana burutzeko. Diegok enpresaritzaren ikasketak burutu ditu ETEO eta Bilboko Sarrikon.

● **JOSE ANTONIO ALTUNA, 'TXATILLO', 53**, Parrokiaren berritze lanetarako sortu berri den taldearen koordinatzaile hautatu dute. Txatillo Arrasateko alkate izan zen eta bere lanari dagokionez JMA enpresako kontseilaria da. Arrasateko Kilometroak ekintzan bera ibili zen koordinatzaile lanetan.



Alan Bookbinder eta Cristina Lago Ingalaterrako BBC telebistako produktore eta kazetaria dira. 1992an Espainiari buruz emango den serie bat egin nahi dute. Horren barruan 50 minutuko kapitulu bat Euskal Herriaz. Bi aste barru, Mondragoen izango dira, han eta hemen gauzak grabatzen. Abertzale-tasuna, euskara, kooperatibak ... interesatzen zaizkie. ▶

**Adi!**

**INGELESA**

Edozein maila

ORDUA: Goizeko 10ak eta 12ak artean  
Arratsaldeko 2ak eta 4ak artean.

Aproposa : etxekoandrentzat, langabetuentzat  
ikasleentzat, dendariarentzat eta  
ordu horietan libre dauden guzientzat

**PROMOZIOZKO PREZIOAK**

Araba Etorbidea 4,  
Tfnoa: 79 01 32  
ARRASATE





**ETXE-AUNDI**  
Dastapen-menua  
Irailaren 28rako

- \* Txerri hanken erroilutxoak perretxiko purearen gainean.
- \* Itsasapo-ragouta oreki freskoaz.
- \* Lupia eta izokin-abanikoa hiru konpotekin.
- \* Krepe kirrikatsua madari karamelatuaz eta izozkiaz.

Onatiko jaietako eskantza berezia.

**3.500 pta. BEZ barne**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
**ORATI**



# Zertan dira etxebizitzak Arrasaten?

## Eginberriak, berrituak edo auzoko herrietako etxeei begira

Pentsatu al duzu inoiz etxe berria erosi ordez zaharra berritzerik? Aukerak badira, eta erosi ezin duzun pisu eraiki berria baino merkeago ere aterako zaizu gainera. Atea jo behar den tokian jotzea besterik ez duzu.

### Proiektu berriak

Asko hitz egin da azkenaldian Arrasaten etxebizitzaren arazoaz. Etxeak behar eta egiten ez, azkenean lau dira martxan jarritako proiektuak, Eusko Jaurlaritzaren babespean edo Udaletik sortutako kooperatibaren baten eraginez etxebizitza bihurtuko direnak. Datuak hor daude, baina badirudi horrekin ere ez dela erabat konpontzen etxebizitza beharra.

### Ikerketa astear

Ahoz-aho dabil, bestalde, etxe asko dagoela Arrasaten hutsik eta Udalean

milakoa inguru izango ote den aipatzen da. *Suradesa* elkarteak duela hiru urte egindako azterketak dioenez, kasko historikoan bakarrik 120 inguru, berritu beharrean egongo den arren. Zehaztasunaren atzetik, herri guztiko etxebizitza hutsen kopuru egiazkoa, eta beste hainbat berezitasun ezagutzeko, langile bat hartu du Udalak. Datozen sei hilabeteetan etxez-etxe ibiliko da, eta burututako lanaren emaitzek ere ekarriko dute, seguruenik, egungo beha-



Altamirako etxeak aurki izango dira bukatuta

rrentzako erantzunik. Kanpoko ikasle eta langileen alokairu arazoa behin betiko argitzea espero da, behinik behin.

### Suradesak proposatzen dizuna

Etxea erosi asmo duenari berria etortzen zaio burura beste ezer baino lehen, baina badira beste bide batzuk ere. Norbere etxe zaharra berritzen, edo zaharra erosi eta erabat itxuraldatzen laguntzea da Surade-

sa bezalako elkarten egitekoa. 1986an Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten ondorioz sortua, hirigune zaharrean dauden etxeen berritze integratuari erantzuten dio Deba Garaiko Mankomunitatean kokatutako erakunde honek.

Etxea berritzeko ematen diren laguntzen artean, bi mota ezberdin daude. Alde batetik Eusko Jaurlaritzak zuzenean ematen dituenak, oso interes bajuko kredituak, nahiz itzuli beharrik gabeko subentzioak. Beste aldetik, badira zeharkako laguntza ere. Zerga aitortenean desgrabazioa lortzen da berrikuntzak egiteagatik, %15erainokoa lortu ere. BEZ-aren araudian berriz, etxebizitzaren balioaren %25etik gorako inbertsioetan %6a kentzeko modua lor daiteke.

### Zeure neurriko etxea

Guzti honekin ikaragarri merketzen da obraren kostua, eta etxebizitza eraikiberria baino merkeago atera berritua. Mankomunitate mailan aurrera atera

ETXE BERRIEI BURUZ			
Non	Prezioa	Noizko	Zenbat
RONEO	12-15	2-3 urte	170
ALTAMIRA	5	Urrian	41
GOROZTIZA	VPO 9 Priba. 11	2-3 urte	110
UHERKAPE	13-16	2-3 urte	110



diren proiektu batzuen ondorioz ikusi denez, errentagarrienak komunitatean egindakoak dira, eta ez jabe bakoitzak bere aldetik burutuak. Hori dela eta, lehentasuna emango zaie era horretako eskariei.

Dirulaguntza eskatzeak ez dakar aparteko eragozpenik. Sarritan etxea berriro asmotan datorrenaren lehen lana paperak berritzea izaten da, etxea nork bere ize-nean ipini eta antzekoak, guraso edo aitonamonen izenean ere egoten direlako etxeak maiz. Ondoren, oinarriko agiriak aurkeztu eta espedienteak bere bidea hasten du. Herritarrak ez du lehen urratsa Mankomunitatera emango, Udaletxera jo behar du lehenbizi, han tramitatu behar diote eta

### Orainarteko esperientziak

**B** adira Arrasateko alde zaharrea etxea erosi eta auzokideen artean guttiz eraberritu dutenak. Kontuan izan behar da laguntza honek orain arte, harrerien barruko Arrasate eta Olarte, Mahala eta Gazteluondo bakarrik biltzen dituela, baina auzoetara ere zabalduko da gerora. Gaur arte, guztira 29 dira Arrasaten tramitatutako espedienteak, horietatik 4 etxe zahar erositak, eta aurrekontu osoa ez da 50 milioitara iristen. Kreditutan 26 milioi eman dira eta beste sei itzuli beharrik gabeko subentzio moduan. Kopuruek berez hitz egiten dute, eta gure herriko etxebizitza arazo honentzat irtenbide izan daiteke, agian.



Gazteluondoko etxea da *Suradesak* eredutzat jartzen duena

**Etxea berritzekotan, lehen pausoak Udaletxean ematen dira**

espedienteak, eta bi hilabeteren buruan subentzioa eskura daiteke. Sistema honen abantaila nagusia, etxea merke ateratzeaz gain, norberaren gustoko eta neurriko etxea egiteko aukera da.

## Aretxabaletara doazenak

**A**rrasateko jende asko Aretxabaletara joan da azken aldi bizi izatera. Batzuk erabat aldatu dute bizilekua, eta gehienek loteku bihurtu dute Aretxabaleta, eta Arrasaten egiten dute bizimodu guztia. Azken hiru urteetan gertatu da, batez ere, emigrazio handiena, eta 87ko urtarrilaren 1etik aurtengo irailaren 18rainoko datuetan ageri denez, 157 dira alboko herrira bizi izatera joan diren mondragoetarrak. Datu horiek ez dira erabat fidagarriak, hala ere, kontuan izan behar da eta doazen guztiak ez dutela hango erroldan izena ematen. Kasurik onenean ere, etxe bakoitzetik baten izena ageri da, eta familia guztiak izena eman badu, bertan finkatzekotan direla ulertu behar da.

Aldegite horrek arrazoi ezberdinak izan ditzake. Arrasateko etxebizitza ezak eraginda mugitu bide dira gehienak Aretxabaleta aldera, eta beste zenbait herri txikiagoa delako ere. Aretxabaletak hazkunde handia izan du azken bost urteetan. Kale berriak eta etxebizitza ugari egin dira, gutxi gorabehera 300 etxebizitza, neurri handi batean arrasatearrek erosi dituztenak.



**AEK-k irakasleak behar ditu Arrasate eta Bergararako Tfnoak: 79 71 12 eta 76 54 11**

**BRANKA**  
**jatetxea**

Eguneko menua eta karta








Inazio Mujika Iraola

## Betidanik literatur mundura lotuta



**Inazio Mujika Iraola Donostian jaio zen duela 26 urte. Hala ere, erdi tolosartzat dauka bere burua amaren jaioterria hori delako. Magisteritza ikasi zuen Donostiako seminarioan eta geroxeago Euskal Filologia ere bai.**

— *Eta bizibidez nondik orain?*

— Gosaria itzultzetik ateratzen dut, apirilaz gero Erein-en lan egiten dut goizetan itzulketen arduradun bezala. Babarrunak, bada, idaztetik ateratzen ditut, arratsaldeak idazten ematen ditut.

— *Noiztik datorkizu literatur zaletasuna?*

— Irakurtzeko txikitandik, lehenengo liburua hartu nuenetik. Ez dakit zein izan zen lehen liburua, gogoratzen naiz irakurtzen nituela Salgariren liburua, edo Vernerenak. Idaztekoa uste dut piska bat hasi nintzela euskara lantzearen, erderaz baneuzkan idatzita beste gauza batzuk lehendik. Azkenean horrekin gelditu nintzen.

Gaztaroaren gaitz bat dela esango nuke, gerora egina baina hor du sorburua, batez ere irakurketa batzuren ondoren.

— *Idazle ona izateko irakurle ona izatea beharrezkoa da?*

— Idazle on bati galdetu beharko. Uste dut idazle izateko irakurle behar dela izan. Ez dakit titulu horiek nire gain dauzkadan, baina bat aukeratzekotan nik irakurlearena aukeratuko nuke, behintzat gozamina irakurtzearena da eta ni irakurlea naiz. Gertatzen dena da babarrunak ez direla irakurtzetik ateratzen. Aurkitzen badut enpresa bat irakurtzeagatik pagatuko didana, seguru izan ahaleginak egingo ditudala han sartzen.

— *Zuretzat inportanteak dira idazle klasikoak?*

— Klasikoak ez dakit, baina euskararen kasuan behintzat, tradizioa oso inportantea da. Idazle batentzat euskara, eta era berean hizkera literarioa, ez dela idazlea

da, gauza berririk gutxi idatzi daitezke dagoeneko. Gaiak aipatuta daude, eskemak eginak: heriotza, bizitza eta amodioa. Hiru polo horietan gabilta mendeetan zehar, eta uste dut hori asmatuta dagoela.

— *Norbaitek esan dizu zure lanak irakurtzeko hiztegia behar dela alboan?*

— Bai, jende askok. Ez dakit defentsa modura esatea edo, baina iruditzen zait normal dakien batek irakur ditzakeela hiztegirik gabe. Orain kuriositate hori, hitz honek hau esan nahi du, beste hark hura, orduan bai. Dena dela, uste dut problema gizar-tean dagoela, hiztunetan dago arazoa.

— *Zuk ez duzu egiten ahalegin berezirik hitz jakin*

— *Zerk erakartzen zaitu baserri girotik?*

— Ez dakit mundu errurala edo norberaren memoria den. Idazle askoren kontua da norberaren memoria erreku-peratzea. Pako Aristi eta Bernardo Atxaga bizi izan dira mundu errural horretan, nire kasua kanpotik joandako batena da, udan gurasoen baserri... memoria hori erreku-peratu eta marko bat eman nire historiak kontatzeko. Behar bada ez dut bide horretatik jarraituko. Uste dut beste ezer egiteko, hori idatzi behar nuela lehenbizi.

— *Salto handia dago literaturatik kazetaritzara?*

— Batzuk esaten dute idazle batek sekulan ez lukeela izan behar kazetari. Idazteko kazetari izatea ez dakit ona edo txarra izango den. Egia da erraztasuna ematen dizula. Saltoa? zer kazetaritza mota egiten duzunaren arabera. Erreportaiak egiten badituzu lagun dezake, erreportaia literarioak ere badaude eta

— *Irla batera liburu bat eraman beharra izanez gero, zein aukeratuko zenuke euskal liburuen artean?*

— Zaila da bat aukeratzeko, agian Duvoisinin Biblia eramango nuke.

— *Eta literatur unibertsaletik?*

— Agian kontseju praktikoak emango lizkidakeen bat, Robinson Crusoe agian. Hobe ailtzur bat norberaren hilotza egiteko, ez nuke irla bakar batean bizi nahi.

### “ Idazle izateko irakurle behar dela izan uste dut ”

rekin berarekin hasten jakitea inportantea da.

Askok aurretik jende askok egin zuen katea dago, eta katea hori ezin da eten. Guri euskaldunoi hori gertatu zai-gu, mende honen hasieran lehenengo euskara mespresatzeko joera nagusitu zen. Gauza berri bat egin behar zela eta esaten zuten, inork ulertuko ez zuen gauza, purismoaren kontuaz ari naiz alegia. Nire ustez tradizioa kontuan hartu behar den gauza

batzuk erreku-peratzeko, nahiz eta erdi galduak izan, edo bai?

— Nik zehazpenaren alde egiten dut apostua. Batzuetan asmatuko dut, beste batzuetan ez. Hitzak nik ez ditut asmatu, lehen aipatutako kate horretan erabiliak izan dira. Hemen gertatzen dena da oso jende gutxik irakurtzen dituela idazle zaharrak eta guk aberastasuna nahi badugu hara jo behar dugula, nahi eta nahi ez.



## Zaldibarko Futbito Txapelketa motorrak berotzen

Zaldibarko Futbito Txapelketa dela eta ehun lagun baino gehiago bildu ziren asteartean Monterroneko kultur etxean, duela sei urte bertan behera utzi zen txapelketari berriro ere ekiteko prest.

Hizlari gisa aurkeztu ziren Jokin Azkoaga eta Fernando Urangak antolaketa lanetarako laguntza eskatzeaz gain, txapelketa honen ezaugarri nabariena kuadrilen artekoa izatea zela esan zuten.

Txapelketa nolabait zuzenduko duen arategiari dagokionez, esan behar derrigorrezkoa izango dela gutxienez 16 urte beteta eduki izatea, talde bakoitzak hamar mila pezeta ordaindu behar dituela eta gutxienez hamabi jokalariren izenak eman. Diru kopuru hori ematearen arrazoiak azkenean talde hoberen bezala agertzen direnek egingo dituzten bazkaria eta bidaiak lirateke.

Astebururo 12 partidu jokatuko dira, txapelketari Maritxu Kajoi bixamonian hasiera eman eta maiatz aldeira bukatuko da seguraski. Txapelketa honetan parte hartu nahi duten guztiek hilaren 26-27-28 egunetan egin dezakete izenematea, arratsaldeko 6etatik 7etara, Monterronen bertan.

Bukatzeko, aipatu txapelketaren aurrekontua 400.000 pezetakoa dela eta Udalaren laguntza ere espero dutela.

Monterronen ikusitako jendearen arabera badirudi aurten ere, duela urte batzuk bezala, talde ugari bilduko dituela Zaldibarko torneoa.



Aurtengo zuzendaritza

## Pedrusko San Andres bihurtu da

### Bi milioiko aurrekontua aurten

Duela 25 urte San Andres auzoan Pedrusko izenarekin futbol talde bat sortu zen. Orain hamar urte izen berberarekin talde hori federatu egin zuten, eta orain Pedrusko izatetik San Andres taldea izatera pasa da.

Toñi Bastida, San Andres taldeko presidentek zioenez aldaketa horrekin auzoa eta taldearen arteko lotura areagotu nahi izan da, jendeak taldeari gehiago lagundu diezaion. Une honetan San Andres taldeak 150 bazkide ditu eta aurtengo denboraldiari begira 2 milioiko aurrekontua dauka, gutxi gorabehera. Jakina denez, San Andres taldeak Arabako preferentean jokatzen du, nahiz eta talde gipuzkoarra izan, alde batetik arlo ekonomikoari begira merkeagoa delako, bestalde kategoriari eustea errezagoa delako preferente horretan.

Kirol arloari dagokionez, makina bat aldaketa izan dira aurten taldean,

iaz jokatzen zuten bederatzi jokalaria Eskoriatza eta UDARA joan bait dira. Horretaz gain, taldeko arduradunek aipatzen zuten arazo larriena entrenatu eta jokatu ahal izateko tokirik eza litzateke.

Iaztik egon diren aldaketak medio, Ramon Luengo entrenatzaileak makina bat frogara egin ondoren, 22 mutil hauek aukeratu ditu denboraldiari begira: atezainak, Alex Ezpeleta eta David Zaitegi.

Atzelariak, Mikel Uribesalgo, Iñaki Corral, Roberto Gomez, Iñaki El-duaien, Luis Maria Uribesalgo, Juan Sanchez, eta Benito.

Erdilariak, Mikel Vivar, Mikel Luengo, Txema Naranjo, Alex Martiarena, Angel Zeziaga, Nando Lage, eta Benito Arnaiz.

Aurrelariak, J.Luengo, Jose Luis Izarzelai, Otxandiano, Iñaki Azkónaga, Txotxe Egaña, eta Santi Boisa.

**E D E L**  
**TAPIZTEGIA**  
Gortina  
Alfonbra  
Koltza  
Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25  
BERGARA


**FANCY**  
**FANCY**  
**GAZTEEN MODA!** Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24



ENRIKE ALONSO

## Denboraldia amaitu eta oporrik ez

PODIUMA



**E**Eeko Tourreko bigarren etapan lurrera erori ondoren, Enrike Alonso txirrindulariak amaitutzat eman du aurtengo denboraldia. "Behar bada niretzat denboraldi guztiko etsipenik haundiena izan da EEEko Tourrean izandako erorketa, luzaroan neramalako froga hori prestatzen. Erorketa horren ondorioz hamabost egunetan atsedean hartzeko agindua etorri zait, eta orain hemen nago aurpegia markatuta eta belaua minduta".

Aipatutako erorketak, orain etxean atsedean hartzen egotera behartzeaz gain, Alonsorentzat izan du ondorio gehiagorik ere. "Bai, oporrrak galtzea ere eragin dit. Kontuan hartzen bada urriaren hasieran, Sabin Padillaren laguntzaz, neguko denboraldiari hasiera emango diodala, ez dago gehiegi pentsatu beharrik oporrik ez dudala izango konturatzeko. Nire kontu egingo dut neguko entrenamendu hori eta tartean ziklo kross lasterketa pare bat edo hirutan parte hartzeko asmoa daukat".

Denboraldia era txarrean bukatu badu ere, Enrike Alonso baikor agertzen da urtean zehar egindakoagatik. "Egia da begirada emanez gero aur-

ten egindakoari gauza ikusgarririk ez dudala egin, baina uste dut iaz baino hobeto ibili naizela, lasterketa gehienetan aurre samarrean egon naizelako; emaitza aipagarririk lortu gabe, baina lortzeko borrokan beti".

25 urte dituen mutil honek egindakoaz aparte, etorkizunari ere baikortasunez begiratzen dio, nahiz eta horretarako arrazoirik aurkitu ez. "Datorrena dagoenez nire laugarren denboraldia izango da profesionalen artean, eta ez dakit zergatik baina gauza onak egingo ditudan esperantza daukat. Sabino Padillak ere nigan konfidantza handia dauka eta horrek niretzat asko esan nahi du".

Indurain aipatzen du Enrike Alonsok denboraldiko txirrindulari hoberentzat eta afortzen du datorren denboraldian berak lortu nahi lukeela izendapen hori. "Onena izateko asko entrenatu beharra badago ere, nik ez daukat arazorik alde horretatik, betidanik negu partean asko enrenatu izan dudalako, gustatuko litzaidake denboraldiko errebelazioa izatea".

◆ **Gimnasia erritmiko ikastaroak**  
Urritik aurrera kiroldegian gimnasia erritmiko ikastaroei hasiera eman go zaie, kirol hau Arrasaten indartu asmoz. Ikastaroan parte hartu nahi dutenentzat adin egokiena 5 urtetik 12 urtera omen da, eta astelehen, asteazken, eta ostiraletan egingo lirateke. Urtebete lanean jardun ondoren, dagoenez bada 30en bat neskez osatutako taldea gimnasia erritmikoan.

### ◆ Saskibaloit partidua

Datorren asteartean kiroldegian goi mailako saskibaloit partidua jokatu da arratsaldeko 7.30etatik aurrera Centraljet-Euskal Air, eta Askatuak taldeen artean. Partidu hau ikusteko sarrerak 200 pezeta ordaindu beharko dituzte bazkide ez direnek eta dohainik bazkideak.

### ◆ Igeriketa denboraldia


Aurtengo denboraldian igeriketa taldean ibili nahi duenak badu horretarako aukera kiroldegian arratsaldeko sei etatik zazpietara agertuz gero, han emango bait zaio eskatuko duen informazio guztia.

### ◆ Puenting-a Araotzen

Aretxabaletan Mendi astea egiten ari direla eta, larunbaterako, arratsaldeko lauretarako hain zuzen, puenting saioa antolatu dute Araotzeko zubian. Txarteletan erakustaldia dela aldarrikatzen bada ere, jakin ahal izan denez, jautzia egin nahi duen guztiak izango du horretarako aukera.

### ◆ Igoak debutatu

Jon Igoak joan den astean Eibar taldearekin egin zuen debuta. Nahiz eta golik ez zuen lortu, dirudienez ondo jokatu zuen eibartarren aurrekaldea indartuz, eta Ipuuako zaleek gus-tora atera ziren Arrasatekoarekin.



# EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrial

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



# Kirola eta osasuna (1)

## Mitoa ala errealitatea?

**L**a mundu guztiak ontzat ematen du konpetitiboa ez den kirola egitea garantia modukoa dela osasun ona lortzeko.

“Izerdiarekin osasunera”, milioika pertsonak aldarrikatzen duten lema dugu; izan ere, korrikan, bizikletan, igerian... hastera erabaki bait zuten egun batez, osasuna hobetzeko eta forma fisiko onean egoteko. Are gehiago, kardiologo amerikar bat -fondoko korrikalaria bera- zera esatera iritsi da, maratoni bat korritzeko gai den pertsona infartoaren aurkako txertoa hartu balu bezala aurkitzen dela.

Dena den, beste aditu batzuen ahotsa ere entzun da esanez oraindik ez dela zientifikoki frogatu kirola egiteak bizitza luzatzen duenik.

Badira azterketa batzuk -adibidez, Londresko autobusetako langileak, San Frantziskoko kaietako deskargatzaileak eta Haradeko ikasleak ikertuz eginak-, kirola erregulartasunez egiten denean, arteroesklerosi eta beste gaixotasun batzuen aurka babesa lortzen dela esaten dutenak. Baina eztabaidatuak izan dira lan hauek eta ondorioak zalan-zalan jarriak, ikerketa horietan erabilitako metodologia ez zelako egokia.

Lan hauek zalantzan jar-



tzen ari zirenean, berriz, Estatu Batuetan egindako beste lan bat argitaratu zen, garantia handiz erakusten zuelarik edozein kausarengatik (arteroesklerosi, minbizi, etab. engatik) hilkortasuna txikiagoa dela forma fisiko ona dutenen artean, eta handiagoa forma

fisiko txarra dutenen artean. Geldikor edo sedentarioen artean hilkortasuna bikoiztu baino gehiago egiten da gizonetzkoen artean eta ia bikoiztu emakumeen artean. Ikerketa honek -“Journal of the American Association” en argitaratua- zioen, ariketa fisikoa egiten duen jendea, nahiz eta gutxi egin, luzaroago bizitzen dela, eta osasun ona izan eta forma fisiko onean egoteko ez dela derrigorrezkoa maratoni korrikalaria izatea.

Horrela, bada, “Kirola eta Osasuna” izango da hurrengo asteotan zehar aztertuko dugun gaia, bere alderdi guztietatik gainera.

*Eukeni eta Arantxa*

# INAUGURAZIOA

Larunbata, Irailak 22.

**M**ota guztietako lore eta landareak 1.500 metru karratuetan erakusgai zure gustora aukera dezazun. Eta zainketak egiteko behar duzun guztia bertan duzularik.

Ordutegia: 10 etatik - 1 etara.  
4,30 etatik - 8,30 etara.  
Iganetan, goizez zabalik.



Jardingintza Zentrua  
Centro de Jardinería

Arrasatetik - San Prudentziara bidea.  
Maxi Eroskitik 1,5 Kmtara.

**Etor zaitez, loretxo bat dugu zuretzat.**



**MAMBO 1ek  
aurkeztuta**

# **ARRASATEKO UDAZKEN-NEGU MODA JAIALDIA**

**Irailak 22, larunbata  
Gaueko 11etatik 12 t'erdietara  
AMAIA ANTZOKIAN**

## **Egitaraua:**

- Mambo 1 ballet modernoa
- Haurren moda aurkezpena
- Gazteen moda aurkezpena
- Kirol moda aurkezpena
- 90-91 Udazken eta neguko moda joerak
- Barruko arropen moda aurkezpena
- Disenugile berriak
- Oinetako moda aurkezpena
- Tunantes del Norte, antzerki taldea
- Maritxu Kajoi Lehen jantzi-diseinu lehiaketa
- Agurra

## **Laguntzaileak:**

**Herriko hainbat jantzi eta osagarri-denda eta  
Arrasateko Udaleko Kultura Batzordeak**





## Diglosia

**S**ail honen irakurleok dakizuenez, aurreko artikuluetan elebitasunari buruzko hainbat azalpen ematen ari izan gara; komunitate linguistiko batean bi hizkuntza daudenean ematen den egoera argitu nahian.

Ildo beretik jarraituz, ondorengo artikuluetan, "diglosia"-ri buruzko beste zenbait argibide ematen ahaleginduko gara. Horretarako, lehendabizi diglosia hitzaren bila-kaera egingo dugu.

1.959an Fergussoni esker popularizatu zen diglosia hitza. Magreben komunitate linguistiko berean, hizkuntz baten bi bariatateren erabilpena ematen da. Nazio funtzioa betetzen duena bata eta familia funtzioa edo funtzio lokala

betetzen duena bestea. Goi eta behe mailako estatusa duten hizkuntza beraren bi bariatate. Hala ere, ez zuen sekula pentsatuko, hizkuntzen arteko zapalkuntza, hots, batak bestea menperatzeak dakartzan ondorio latzak aztertzen zituen soziolinguistika hura, hain konzeptu errebindikatiboa izatera helduko zenik.

Eta badira diglosia hitza kutsatuegi dagoela uste dutenak ere eta honela adierazten dute: Hizkuntz borroka edo Hizkuntz gatazka.

Gauzak horrela, menperatutako lurralde linguistikoarentzat diglosia hitza izan da, elebitasun hitz manipulatu horretatik aldenitu eta benetako arazoak aztertzeko bidea zabaldu duena. Abantailak ere baditu, estatuko menpera-

tzaile linguistikoek ez bait dute diglosia hitza sekula erabili.

### Botere linguistikoaren distortsio politiko-soziala

Kontzientzia linguistikoa, konpetentzia linguistiko eta erabilpen funtzionala batera ematen direnean soilik, izango du hizkuntzak botere linguistikoa. Hau da, euskaldun izan nahi, euskaraz egiten jakin eta erabili ahal izatea batera ematen direnean soilik izango du hizkuntzak botere linguistikoa.

Egun diglosia, aipaturiko botere linguistikoaren distortsio politiko-soziala dela esango genuke. Botere politikoa da, hain zuzen, komunitate linguistikoan distortsio hori hiru maila ezberdinetan eragiten duena.

Lehenik hizkuntza maila

inposatutako hizkuntza, aurretik ama-hizkuntzak beteriko hainbat funtzio betetzen hasten da.

Hurrengo, komunitate linguistiko mailan, hizkuntza arrotzaren inposaketa egiten da, ama-hizkuntzaren erabilpena galeraziz.

Azkenik, maila indibiduallean trasiziozko elebitasuna ematen da, ama-hizkuntzaren transmisioa bazterturik be-laualdi horretan edo hurrengoan betirako galtzen delarik.

Guzti hau, desnatibizazio edo nortasun linguistikoaren ukapena baino ez da.

Honetaz gain, kontuan izan behar dugu diglosia gradu kontua ere badela, egoera diglosiko guztiak ez bait dira berdinak. Baina hori hurrengorako.

Atalataikoa



**EUSKARA LANDUZ**

**EGUNEZ EGUN**

**Erdü-AEK**

**Matrikula zabalik!!!**

**Maila guztiak, EGA eta Alfabetatzen**

**ARRASATEN: Erdiko kale 28, 1. Tfnoa: 79 71 12**

**BERGARAN: Barrenkale 18, 1. Tfnoa: 76 54 11**

Bulego orduak: 10etatik 1era eta  
4etatik 8etara

Epea 28an bukatzen da

**izan euskaldun!**





## Jose M<sup>a</sup> Balanzategi, "Aizkora"

**D**uela bi urte erosi zuen Aizkorak bere R5a, eta gustora dago. Denbora duenean berak garbitzen du, eta zaindu ere bai, baina ez dauka harreman berezirik autoarekin. *'Ez naiz gidatzearen lagun'*, dio Jose Marik, *'lanerako ez dut normalean erabiltzen, baina berebela gaur egun behar beharrezkoa da'*. 23 urte daramatza gidari eta harro adierazten digu inoiz ere ez duela istripurik izan. *'Seguroak zoriondu egin nau, gidari eredugarria omen'*. Oraingoz ez du berria erosterik pentsatu, baina egitekotan, leial jarraituko luke lehengo marka.



# OPARI-DENDA JOKO DIDAKTIKOAK

Etxe hauekin egiten  
dugu lan:

Eolo-Gayla, Didacticos  
del Sur, Lado, Fontsero-  
Coma, Goula, Fisher  
Price, Constansó, Akros.  
JT, Jokoak, James  
Hamilton Limited,  
Puzzleak, Rosal...

Kometak, Puzzleak,  
Umeentzako pinturak...



# kumu

Otalora Kalea, Tfnoa: 79 75 43 ARRASATE




# Tontorretako kondorrak (I)

**O**porrak heltzear zeudela eta Azpeitiko hiru lagun, Eskoriaztako bat eta arrasatear bat elkartu eta Perura joatea erabaki genuen. Ordura arte Pirinio eta Alpeetako hainbat mendi igota geneukan, baina bost edo sei mila metrotako mendirik inoiz ez.

Prestakizun guztiak egin eta abioira, ordu luzeak motorren burundara entzuten pasa ondoren, heldu ginen azkenean Limara. Han ezagutu genituen monja agurgarri batzuk zain genituen eta egun horretako aterpea behintzat ziurtatuta.

Hurrengo egunean astirik galdu gabe Huaraz-era,



Peruko mendizaleen topalekura. Gure helburua Huescaran igotzea bazen ere, lehenik aklimatatu beharra zegoen eta aklimataziorako

Ishinca bailara aukeratu genuen.

Hala ere, mendira abiatu baino lehen mendian geunden bitartean dendak zainduko zituen norbait bilatu

behar, herritarrek horren pobreak izanik, sal zezaketen edozer hartzen zuten eta. Huescaeko mendizale batzuk, Agustin, beti irrifarra aldean duen Quechuar atsegina aurkeztu ziguten eta guk kontratatu. Agustinek bazkari ederrak prestatzeaz gain, oporrak asko erraztu dizkugu, mandazainak, bazkariak, kamioneta eta behar genuen guztia lortzeaz bera arduratu zen eta.


Huaraz-en prestakizun guztiak egiteko behar izan genuen denbora emanda gero, trasto guztiak hartu eta kamionetan Collon herrizkarantza jo genuen.

(Jarraituko)

Hankamotz

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78



**ZENBAKI**

*Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak*

Basabe industrialdea  
ARETXABAETA

Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

**I  
R  
A  
T  
I**

**Ferrerias kalea  
Tfnoa: 79 71 80**

**PAZI-OLA SA**

Zaldizpe kalea 2,  
Tfnoa 79 29 91  
**ARRASATE**

**VICTOR RUIZ MELGAR**

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)  
**ARRASATE**

**ARRASATE  
PRESS  
77 08 15**



## AURRERANTZEAN

# "Inpresio" atsegina jaso ahalko duzu



# fasprint

## zerbitzuak

- Tirada txikietan espezialduriko inprimategia.
  - Bisita txartelak
  - Gonbidapenak
  - Lehenengo eta hurrengo orriak
  - Albaranak
  - Fakturak
  - Kartazalak
  - Foileto eta kartelak
  - Karpetak
- Inprimaketaren osagarriak.
  - Azaleztapenak
  - Telefaxa
  - Aurreliseinuak
  - Eurokalkoa
  - Koloretako eta zuri-beltzeko fotokopiak egiten dituen, Deba Garaiko lehendabiziko denda
  - Autoedizioa
  - Grapaketa
  - Zulaketa
  - Plastifikaketa

## abantailak

- Offset sistema, kalitate goreneko erreprodukzioak, beraz
- Denda izaera, hurbiltasun eta harreman zuzena eskeiniz
- Prezio egokiak tirada txikietan
- Bizkortasuna ( emanaldi epea 48 ordu )

# fasprint

**Inprimaketa denda**

Arrasate Pasealekua, 2

Telf. 77 06 11

Fax. 77 09 86

20500 Arrasate

Zure zerbitzura irailaren 14etik aurrera



Aste gazte

- Kuarteletan egindako ikerketa baten arabera, soldaduzka garaian gazteek bizitza normalean baino hiru bider alkohol gehiago kontsumitzen dute.
- 500 eragozle insumiso tribunalen aurrean epaiketaren zain.
- 1989an, ihesleak 5.000tik gora izen ziren. (Cejota, eh! informazio-orritik ateratako datuak).



Oporraldiak

- Zaldiketa-ikastaroak Austrian, Micvheldorf. 6 egun. 30 urtetik beherako ikasleentzat. Prezioa: 32.900 pta eta bidaia. Urriaren 1. hamabostaldirarte.

Ikasketak

- Europa Komunitate-Zuzenbideko Masterra. EHU Zuzenbide Fakultateak antolatuta. Donostian. Urritik-maiatzera. Aurreinskripzioa: urriaren 30erarte.



Lehiaketak

- Azpeitiko VIII. Euskal Antzerki Topaketak. Euskaraz. Helduei nahiz haurrei zuzendutako lanak. Talde amateurrentzako sariak: a) antzezleri 100.000 pta., b) zuzendari 100.000 pta., c) taldea 100.000 pta. eta oroigarriak. Izenak emateko epea: irailaren 30erarte.

- Kartel-Lehiaketa: Azpeitiko VIII. Euskal Antzerki Topaketak. Teknika librea. Saria: 100.000 pta. Lanak aurkezteko epea: irailaren 30erarte.

- "Sestaoko Udala" IX. Estatuko Argazki-Lehiaketa. Gai eta teknika libreak. Kolorez ala zuri-beltzez. Partehartzaile bakoitzak 4 argazki aukeztu behar ditu.

Sariak: 1.125.000 pta. eta oroigarria. Klasifikaturiko 10 bildumei 20.000 pta. eta oroigarria. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 17rarte.

• "Basauriko II Literatur Lehiaketa". 2 modalitate: narrazio laburra eta poesia. Euskaraz edo gaztelera. Gai librea. Sariak: modalitate bakoitzeko 100.000 pta eta kriseilua. Lanak aurkezteko epea: urriaren 28rarte.

Ihardunaldiak

- Irailak 21-30 "Probren kontrako" Ihardunaldiak. Abetxukon.

Bekak

- Administrazio eta Lege-Arloko Itzulpena lantzeko bekak: 4 Lankidetzabeka Itzulpen-Zerbitzu Ofizialean. Eskatzeko epea: irailaren 24erarte.

Informazio gehiago:  
Gazte Zerbitzuan,



79 09 00

"PAL"

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

M  
ARENZA

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

FERRERIAS

Fotokoplak  
Enkuademazioak  
Planen erreproduzioa  
Ofseta  
Ferrerias 23,  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15

ARRASATE  
PRESS

Tfnoa: 77 08 15



## ETXEBIZITZAK

- Pisua alokatzen da Erguinen. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 40.000 pta. hilean. Tfnoa: 21 12 25, 10etatik aurrera.
- Alde zaharrea etxe merkea erosiko nuke. Deitu goizez edo arratsaldez 77 09 40 tfnora.
- Neska ikasle taldeak alokatzeko pisua behar dugu Arrasaten. Harremanetan jartzeko deitu 69 08 19 tfnora.
- Etxebizitza salgai Zarautzen, hondartzatik 5 minutura. 82 m. Tfnoa 83 11 63
- Guztiz berrizutako etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, jangela, hall-a, bainugela, hornitutako sukaldea, ganbara eta berotze sistema. Makatzena 15, 4 C. Tfnoa 79 49 49
- Apartamentua alokatzen da Laredon. Interesatuak 793147 tfnora deitu.
- Alokatzeko etxebizitza bila gabiltza. Dei egin 94-683 09 48 tfnora.
- Etxebizitza saltzen dut San Andresen. Zabaldua, ikuspegi onekin. 4 logela eta egongela, 2 bainugela eta jarritako sukaldea. Igogailu, berokuntza, antena parabolikoa eta hari musikalak. Interesatuak 79 51 09 tfnora deitu.
- Baserria salgai. Bergararik 2 km-ra. Interesatuak goizeko 10.00ak eta arratsaldeko 7.00ak artean deitu. Tfnoa 77 00 8
- Hiru neska behar ditugu pisua osatzeko Donostian. Tfnoak: 79 69 80 eta 79 50 28. Betatik aurrera deitu.
- Irakasle taldeak alokatzeko pisua behar du Arrasaten edo inguruan (Aretxabaleta, Eskoriatza...). Tfnoa: 79 70 77. Aintzane edo Bego.
- Donostiara ikastera doazen hiru neska beste neska ikasle batzuk behar dituzte elkarrekin bizitzeko. Deitu 79 50 45 Tfnoa. Mertxe.

## LANA

- Andra, 40-50 urte bitartekoa, etxeko lanak egiteko behar da. Interna. Tfnoa: 79 16 63
- Neska prest umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Yoliz galdetu. Tfnoa 79 95 96
- Neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Dei egin goizean 9.00-3.30ak bitartean eta arratsaldez 7etatik 10.30etara. Mari Josez galdetu. Tfno 79 95 96
- Neska euskaldunak umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 76 81
- Esperientziadun neska prest interinen lana egiteko. Tfnoa: 77 04 97. Nati, 9etatik aurrera.
- Neska edo andra behar da hiru ume eta etxeko lanak egiteko. Altamiran. Tfnoa: 79 65 23.
- Erretegi batean aste bukaeratan lan egiteko bi emakume euskaldun behar dira. Tfnoa: 76 22 68.

## SALEROSKETAK

- Haur bizikleta GAC salgai 12-14 urte bitartekoentzat. Tfnoa: 79 55 22. Carolina.
- Salgai daude: Pastelentzako kamara-bitrina ia berria. Pastelentzako laba berria. Izozkirentzako kamara ia berria. Brontzeko lanpara ederra. Prezio interesgarriak. Tfnoa: 79 23 58 eta 77 00 91.
- Peugeot karrerazko bizikleta, egoera onean salgai. Tfnoa: 79 23 61. Haritz.
- Kitarra elektrikoa eta distorsio pedalak ditut salgai. Tfnoa: 79 25 10.
- Karreratako bizikleta salgai. Gutxi erabilia, arina, freno-kableak barrutik, kilometro kontagailuak. Prezioa, oso modu onean. Tfnoa: 76 32 69.

- Izozkallu espositorea eta "Mikra" pixu elektronikoa salgai. Tfnoa: 78 04 06. Deitu goizetan.
- Violoncello berri-berria salgai. Interesatuak deitu 79 47 95 tfnora 8etatik aurrera.
- Gibson Itxura duen kitarra salgai. Tfnoa: 79 88 81 Jose.
- Seat Ritmo oso zaindua salgai. Probatzen uzten dut. Tfnoa: 79 25 19.
- Anplifikadorea Rolan 60 Watiokoa salgai. Tfnoa: 79 29 86

## DENETARIK

- Egunero goizez Bilbora joan behar dut eta ez daukat autorik. Zeurean lekunik baduzu, deitu 79 32 02 telefonora. Gastuak erdibana. Deitu lehenbailehen.
- Gela konpartitu baten ohea alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Frantsesetik Itzulpenak eta bestelako mekanografi lanak egiten ditut. Ana. Tfnoa 795676
- Eralkitzeko lurra behar da Arrasate, Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Deitu 792586 tfnora
- Saloa eta Aitziber: zuen hebideta Gofin ahaztu genuen. Ea inoiz idazten diguzuen eta bide batez zuen hebideta bidali. Iparraldetik Jo ta fuego.
- Iparraldeko bi sorginak, beste batzuk ere bizi gara eta gutxienez agur edo gorantziak bidali eta ez betikoez gogoratu. Jo ta fuego!
- M<sup>a</sup> Rita Segurola Larrañaga irailaren 29an hil zen. Bere lagunak, ostiralean, irailak 21, arratsaldeko 7etan Unibarriko elizan emango den mezataria elortzea eskertuko dizute.



**ARRASATEN  
HILDAKOAK**



**Francisco Garai Albiste**  
Irailaren 11an. 78 urte.

**Rafaela Zuazubiskar Larrañaga**  
Irailaren 12an. 74 urte.

**Vicenta Pachan Vaz**  
Irailaren 15ean, 90 urte.

**Angeles Izquierdo Dominguez**  
Irailaren 15ean, 74 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK  
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA  
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15



# Zer nahiago?

## Jose Luis Armendia

Yoga eta masaje irakaslea. Arrasateko Yoga Elkarte zuzendaria



- Arineketan egitea ala meditazioa? Meditazioa
- Okela ala arraina? Arraina.
- Dantza, sueltoan ela helduta? Bietara.
- Txapela ala turbantea? Txapela.
- Pijamarekin ala pijama barik? Segun zer temperatura ...
- Begi berdeak ala ilunak? Berdeak.
- Ying, ala Yang? Ni gehiago naiz Yang, beraz Yang.
- Jane Fonda ala Raquel Welch? Bata ere ez.
- Erdi beteta ala erdi hutsik? Gauza bera da.
- Maisu ala ikasle? Ikasle ona izatea.
- Masajea ala igurtziak? Biak, bakoitza bere momentuan.
- Arnasa sudurretik ala ahotik? Sudurretik.
- Gatza ala azukrea? Azukre integrala edo ezia.
- Esne osoa ala gaingabetua? Osoa.
- Medikua ala petrikiloa? Medikua.
- Diskoa ala konpaktoa? Musika klasikoa bietan.
- Urbia ala Degurixa? Biak asko.
- Atzo ala bihar? Gaur!
- Txakurra ala katua? Nahiz bata, nahiz bestea.

## Zelebrequerixak

**F**ernando beti izan ei zan langille kaskarra. Tabernan, neskatan eta lagunartian berriz, aukerakua. Behin, ziero formaldu bihar zala sartu ei jakon buruan.

Laneko bi lagunekin alkar hartuta erabagi eben handik aurrera lana gogor eñ eta ez ebela ardao tantarik probauko. Eta ez hori bakarrik: "ardao" izen madarikatua ahotan ez erabiltzia erabagi eben. Esaten ebanak pezetako multia pagau bihako ebala.

Hurrengo egunian joan zien zintzo-zintzo lanera eta goizeko hamarrak arte iñor etzan akordau ardaorik zanik pe. Ordu horretan ogibittartekua jan ohi eben erdixan porroia jarritta.

Ogibittarteko tristia egun hartakua. Ogibittarteko sikua jaten zihar-duela hola ekin zotsan batek:

— Haura zuan gauzia.

Bigarrenak igarri zotsan zeren gaifian ziaharduan:

— Hartatik eraten eztok makala jentia.

Fernandok berriz errekauiak eitten zittuan mutikaui deittuaz:

— Mutil, hartu garrafoia eta ekarri betia.

Hola, erabakittako gauza guztiak bete ezpazittuen be, bai inportantiena: "ardao" izena ez aittatzia.

— — — — —

Juan Martin Elexpuru

**Felipe Arrizabalaga**  
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

**APOTZAGAN**

**S. Migel jatetxea**

Egunero arratsaldeko

Tetatik zabalk

Tfnoa: 77 04 94 / 79 83 93





1934eko Urriko Iraultza Arrasateko Iraultza Batzordea

**O**rdu latzak bizi izan zituen Arrasatek 1934eko urriaren 5ean, Eskuina zegoen Madrilgo gobernuan, azken hauteskundeak irabazi

eta gero. Egonezina zen nagusi ezkerria eta eskuinaren artean, eta kolore guztietako konspirazioak eguneroko ogia.

Aipatu urtearen 5ean ezkerrek deitutako matxinada lehertu zen Asturiasen. Helburua, eskuina boteretik bota eta langileen Errepublika ezartzea.

Mondragoera Eibartik heldu zen abisua, goizeko ordubata aldera. Sozia-

listak armak eta janariak eskuratu, udaltzainak atxilotu eta herriaz jabetzen hasi ziren. Goizeko bostetarako Arrasate ia osoa koartela ezin izan zuten hartu- euren eskuetan zegoen. Hauek, Magdalena kaleko sozialisten etxean osatu zen Iraultza Batzordearen aginduak betetzen zituzten.

Goizean zehar hiru atxilotu ezagun zeuden Herriko Etxeko lehen solairuan: Marcelino Oreja Elizegi, Dagoberto Resusta, biak diputatuak eta UCEMEko buruak eta Rikardo Azkoaga enpresa bereko administraria.

Errepublika Sozialista aldarrikatu ondoren, arratsaldean armadaren soldaduak zetozela eta, iraultzaileek Oreja

eta Resusta hil zituzten. Azkoagak ihes egin zuen, zaurituta. Gauzak horrela, eta matxinadak porrot egin zuela ikusita, matxinatu gehienek hanka egin zuten Elgeta aldera. Batzuk Frantziara ailegatzea lortu zuten. Besteak ez.

Argazki hau Tours-en (Frantzian) atera zen urte hartan eta bertan Arrasateko Iraultza Batzordea osatzen zutenak agertzen dira. Pedro Ruiz de Alegria, Bitor Berezibar, Kose Agirregomezkorta, Zelestino Uriarte, Frantzisko Azkonaga, Ismael Diez, Jaime Uriarte, Gilermo Lasagabaster eta Markos Vitoria. Goiko iladan eskuinetik hasita lehena ez zen mondragoetarra.

**Iosu**

argazki denda

Argazkilaritzarako materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

**ZUBIZARRETA  
TAILERRAK**



Gipuzkoa Etorbidea 22  
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE







## Velazquez-i omenaldia

**A**rbolapetan eserita geratu naiz, geldi-geldirik, goikaldeko txorien zurrumurrua entzunez. Eguzkiak urrezko bilakatzen zituen zelaiak eta, muino urrutien artean, haizeak hauts-laino bat harrotzen zuen aldian behin. Zeozer majikoa zegoen guzi hartan. Pentsatu egin dut errealitate hau ez duela inork inoiz isladatuko neuk oraintxe ikusten dudan moduan, ondotxo bait dakit errealitate hau neure-neurea dela eta beste inori igorriezina. Denok dugu norberarena bakarrik den errealitate bat, neurri batean existitzen ez duena. Ezin dugu errealitate absolutua, garbi eta biluzia, harrapatu. Baina ez gaitezen ardura. Ezen artea, honela iruditzen zait behintzat, Velazquez-engandik honuntza, horixe bera bait da: ez dena..

*Juan Perucho  
Itzulp.: J.I.*

 **MIKEL LASA**  
ASEGURU ARTEKARITZA

**ASEGURU  
ARTEKARIA**  
Zure esanetara gauzakaku!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE



✓ **JORDI CULÉ.** Zalaparta ederra antolatu da Kataluinako TV-3 kateak futbol-partiduen laburpenetan erabiltzen hasi den marrazkia dela eta.

Ez nonahi, alabaina, Gaztelerrri inguruan baizik, Madrilen batez ere, Sevilla-Real Madril partiduan madrildarrek penaltia huts egin zutenean, Jordi potoloa dantzan eta txilinbueltak egiten hasi zelako.

Iraintzat hartu dute panpina Madrilen, mehatxu gogorak egon dira, editorialak idatzi, etab. luzea. Azkenean, TV-3eko zuzendaritzak barkamena eskatu behar izan die merengeei.

Nik larunbatean ikusi nuen, *Kirolez Kirol* saioan eta barregura baino ez zidan eman. Ez nion irain kutsurik hartu, ezta urrik eman ere.

Els Joglarsek TVE erabiliz Jordi Pujol eta Montserrateko amabirjina ederki jorratu ondoren Katalunian egon zen erantzunaz gogoratu nintzen. Orduan komunikabide espainiarrek katalanen umore faltaz hitz egin zuten aho batez. Oraingoa, ordea, ez omen da umorea, iraina baizik. Ikusi egin behar espainiarren umore ahalmena noraino heltzen den bateren bat britainiarrek beren erreginarekin bezala, Borbonekin sartzen denean.

✓ **POLI DIAZ ORLEGI OMEN.** Vigon jarri zuen Europako txapela jokoan Vallecasko mutilak eta ETB1-ek zuzenean eman zuen.

Mikrofonoan Pedro Mari Goikoetxea eta Manu Maritxalar boxeolari ohi euskalduna.

Poli Diaz ez zebilen uste bezain fin eta Munduko txapela jokatzeko oraindik heldu gabe zegoela esateko, berde samar alegia, Maritxalarrek burruka horretarako Poli Diaz oraindik *oso orlegi* ikusten zuela jaulki zuen.

Manu Maritxalarrek badaki boxeoz eta nabaritzen zaio. Euskaraz, berriz, labainkada dexenteak egiten ditu nahi baino sarriago: ergatiboak, zehar galderak eta halako espresioak esaten ditu entzun-ikuslea KO uzteko modukoak.

Haren ertzeko botileroak eta baita arbitroak ere kontu handiagoa izan beharko lukete oker horiek zuzentzen, horrela segituz gero, inoiz ez bait da komentariisten gailurrera iritsiko.

Joxe Aranzabal

## Gusto baduzu

### ☐ SASKIBALOAIA

Igande arratsaldean etxean pasatzeko gogorik izanez gero behintzat, eta kirolzalea bazara, saskibaloia daukazu ikusgai, datorren igandean, hilak 23, arratsaldeko 18.10ean ETBn. ACB liga eskainiko digute


### ☐ MACBETH

Antzerkizale amorratuek gustoko izango dute, zalantzarik gabe Shakespeare famatuaren obrari zuzendutako serie hau, Shakespeare Handia (Shakespeare in perspective). BBC britainiarrak produzitu zuen antzezlanen emanaldi multzo hau eta aste honetakoa, Macbeth izeneko lan famatuan, euren mailaren berri jasotzeko modua izango dugu. Igandea, hilak 23, 15.05ean.

### ☐ PAPERMOON

Aktore aktorea ezagunak ageri dira Peter Bogdanovich-ek zuzendutako pelikula honetan. Ryan eta Tatum O'Neal, besteak beste. Kansaseko depresioa gertatzen den bitartean, Moses Pray eta Addie deituriko neskatoa aurkitzen dira. Diru kontu bat dela eta, ez du Addie Moses-engandik aldendu nahi, eta aurrera egingo dute bidea, Bibliak salduz. Larunbata gaueko 22.45etan.

## Bideoak



### ARKA GALDUAREN BILA

Steven Spielberg eta George Lucas-ek Indiana Jones sortu zuten. Botere mistikoa duen Itun-arkaren atzetik ibiliko da pelikula honetan Indiana arkeologo ausarta, Harrison Ford-ek bizi arazten duen pertsonaia.

## Ostadar irratia

### OSTIRALA

3.30 eta 8.30. *Errota-zahar* (Ipuinak)

4 eta 8.30. *Batutakin* (Musika klasikoa)

### ASTEAZKENA

4 eta 8. *Xiru-liru-ii* (Haur kantak)

### OSTEGUNA

1 eta 8. *Irratia-gelan* (Gelako grabaketak)

OSTADAR Irratia. 102 FM





**E** hundik gora jokalarik hartu zuten parte *Abadia Urrustoi* pastoralean eta hara non tartean Zuberoako rokeru zaharra, **Niko Etxart**, agertu zen. *Musikantokoek* ez zuten aukera galdu eta Monterongo belarretan elkarizketatu zuten.



**I** kusmin handia sortu zuen mondragoetarren artean *Alkatearekin berbetan* saio berriak. Bat baino gehiago harritu egingo zen kazetarietako baten ahotsa -ez aurpegia- oso ezaguna zitzaielako, **Lazaro Azkune** zen, **Loiola Herri Irratiko** esatari ezaguna. Azpeitiarrak -besteek bezala-, Mondragoeko gorabeherak gertutik segitzen dituela erakutsi zuen. Eskerretik eskuinera **Lazaro Azkune**, **Bego Zubia**, **Iñaki Mendiguren**, **Xabier Zubizarreta** eta **Juanito Leibar**.

asteke

**PROGRAMAZIOA**

**24 ASTELEHENA**

- 19.00 *Teletestua*: era guztieta informazio eta abisuekin.
- 20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 **Mondrasport**, Beldardo Kortabariak zuzendua.
- 20.40 **Medikua etxean** Bitor Irigoien doktorea eta Arantza Lizasorekin. Gaia: gripea.
- 21.10 **Arrasateko I. Moda desfilea**. Larunbat gauean Amaian izandako desfilearen erreportaia.
- Berriak** (errepikaldia)

**25 ASTEARTEA**

- 11.00 *Teletestua*
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Mondrasport** (bezperakoa)
- 12.40 **Medikua etxean** (bezperakoa)
- 13.10 **Arrasateko I Moda Desfilea** (bezperakoa)

**26 ASTEAZKENA**

- 19.00 *Teletestua*.
- 20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: Pentsiar Golekoko krisia.
- Berriak** (errepikaldia)

**27 OSTEGUNA**

- 11.00 *Teletestua*.
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
- 28 **OSTIRALA**
- 19.00 *Teletestua*
- 20.00 **Berriak**, Begofia Garak aurkeztua.
- 20.20 **Erretratoa** J.R.Elortzak aurkeztua. Gonbidatua: Alejandro Zubia "Liorra".
- 20.50 **Musikantoi**, Pepe, Asier, Patxi eta Mikelek aurkeztua. Rock-az ikusi nahi duzun guztia.
- Berriak** (errepikaldia)

**29 LARUNBATA**

- 11.00 *Teletestua*
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
- 12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)
- 13.30 **Zenbat buru, hainbat aburu** (asteazkenekoa)



**OBRAK DIRALA ETA ERDIKO KALEAN GAUDE**

*Mondragonesa Grafikagintza*

**Paperdenda. Mahaigaineko tresnak**

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63



**MIKEL**

**Eskaiola, pintura eta kortxoeko apainketa**

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
**ARRASATE**





**ARIES**  
 Martxoaren 21etik  
 Apirilaren 20ra

Dezepzioak ahaztu eta bizimodua planifikatu beharrean zaude. Ahobero ibiltzeak arazo horiek nahas diezazkizuke. Sutan jartzen zara edozerekin.



**LEO**  
 Uztailaren 23tik  
 Abuztuaren 23ra

Ez zaitetz ibili arazo eta hartu beharreko erabaki horiei ihes egin nahian; ondo pentsatu eta aurre egiezu. Urduri bazabiltza zure arazoa da, ez zaitetz hain leloa izan.



**SAGITARIUS**  
 Azaroaren 23tik  
 Abenduaren 21era

Ez ibili okerrak edo hanka sarteak zurutuko dituen ezereen bila, zeure burua engainatzeko baino ez da izango eta; medita ezazu. Harreman hori zeure esku dago.



**TAURUS**  
 Apirilaren 21etik  
 Maiatzaren 20ra

Zuk nahi izanez gero bakea nagusituko da inguruan. Garaiz emandako aholkuek umore aldaketa ekar bait dezakete. Bakardadean erortzea ebitatu.



**VIRGO**  
 Abuztuaren 24etik  
 Irailaren 23ra

Hondamendien bazeunde hasiko duzu astea, baina berehala ahaztuko dituzu penak; umore onari eusteak eta intuizioz jokatzek eraztuko dizu. Lanerako ordua iritsi zaizu, beraz ekin gogor.



**CAPRICORN**  
 Abenduaren 22tik  
 Urtarrilaren 20ra

Larri zabilza eta hitz eginez lasaitzea komeni zaizu. Ez ibili jendearen ekintzen zergatien bila. Ez hartu lana zigorra bailitzan, baikik eta jolas moduan. Barruko bakea lortzen saiatu.



**GEMINI**  
 Maiatzaren 21etik  
 Ekainaren 20ra

Aste atsegina datorrena Gemini, burua argi izango bait duzu sormenerako; nekezena ideiak errealitatera bideratzea izango da. Energiatz gainazka zaude eta edozertarako aprobetxatu.



**LIBRA**  
 Irailaren 24etik  
 Urriaren 23ra

Baldreskeriak ez dizu lagako gauzak zuk nahi bezala ateratzen. Aspertuta, errudun sentituko zara horregatik eta ezertarako gogo barik ibiliko. Lana gogo onez hartzeak jaitzialdi hori goratu egingo du.



**AQUARIUS**  
 Urtarrilaren 21etik  
 Otsailaren 19ra

Ez zaitetz hainitsu ibili, ilusioak errealitatearekin loturik behar du izan beti eta. Hartu beharreko erabakietan ebitatu azkenengo punta ere begiratu behar hori. Bake pixka bat emaitz lagunari.




**CANCER**  
 Ekainaren 22tik  
 Uztailaren 22ra

Alda ezazu aldagarri dena, hau da, zure nagikeria, umore txarra eta arinkeria, baina ez saiatu besteak aldatzen, denbora galtzea baino ez da izango eta. Ariketa fisikoa egin.



**SCORPIO**  
 Urriaren 24etik  
 Azaroaren 22ra

Aste honetan puntu batzuk galduko dituzu erasokor egongo zarela, baina lasai egoten saiatuz gero berehala errekuperatuko dituzu. Ez hartu berehalako erabakirik, Zure bizimodua nahas bait ditzakete.



**PISCIS**  
 Otsailaren 20tik  
 Martxoaren 20ra

Umore txarrez egongo zara momentu batzutan baina berehala pasatzen diren horietakoa izango da. Zeure lanaren agintari izan nahi baduzu gai zarela ikustarazi. Inoiz ez bezala aspertuko zaitu rutinak.

## Eskolaz kanpoko ekintzak



### Larunbatero

- Irteerak
- Jolasak
- Kirolak
- Ibilaldiak
- Kantak
- Tailerrak

...  
**euskaraz**

#### Norentzat

"B" ereduko Erdiko Zikloko eta 6. mailako haurrentzat eta "D" ereduko 5. eta 6. mailakoentzat.

#### Txandak

Goizez 10etatik 1era eta arratsaldeaz 3.30etatik 6.30etara.

#### Helburuak

Haurren arteko harremanetan euskararen erabilpena bultzatu. Euskararen ezagupenak zabaldu.

#### Informazio gehiago

AED Elkarte. Pablo Uranga 4, etxabea, Tfnoa: 79 54 46.





# Indarberritu den lehoi arrasatearra



## RONEO

■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

• 1929. ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze saioa heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m<sup>2</sup> koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu ditularik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

**RONEO** indarberritu da, Arrasate ere bai.

**RONEO UCEM**

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza





Musakolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek egina

IRAILAREN 30

SALBURUA · GASTEIZ



# ALDERDI EGUNA

Arrasateko Uri Buru Batzarrak  
ALDERDI EGUNERA konbidatzen  
zaituzte.

Txozna izango dugula eta jana-  
riak emango direla ere adieraz-  
ten dizuegu.

Janariaren txartelak Batzokiko  
tabernan har ditzakezue



EUZKADI: ZURE ETORKIZUNA.